

Eraldaketa Soziala bada **Lankidetzaren** helburu finalista eta Arizmendiarrietaren filosofia eta pentsamenduaren ardatz nagusia, **Berrikuntza** da helburu hori bermatzen duten zutoinetako bat.

Hona hemen ideia hori garatzen duten haren gogoetetako batzuk:

Bizitasunaren ezaugarria ez da irautea, berriz jaiotzea eta egokitzea baizik.

p 229

Aurrera egiteak gehienen laguntza behar du, baina aurretik gutxienekoen sormenezko bultzada eta bultzada berritzailea izanda. Hortaz, komeni da haien laguntza inertziaren, ohituraren pisua baino handiagoa izatea; urrutirago ikusi eta formula berriak deskubritu eta aplikatu dezaketenez gutxienekoen energia berritzaileak barneratu eta zirkulazioan jarrita berpiztu behar da.

p 020

Kooperatibismoak jomuga duen ordena ez da estatikoa, etengabe aldatzen ari den eta forma hobea izateko joera duen ordena da, oreka da mugimenduan. Ekintza bizigabe bat kontraesana da eta kooperatibismoa, teoriatik baino gehiago ekintzatik eta esperientziatik jaiotzen dena, sortu eta nahi behar dugu adierazpen moduak etengabe bilatuta.

p 243

Bizitasunaren ezaugarria, azken finean, irautea baino gehiago birjaiotzea bada, kooperatibista handi batek oso ondo esan zuen moduan, kooperatibismoa paternalismoaren antipodaz aparte konformismoaren eta kontserbadurismoaren antipoda ere bada eta inolako dogmatismorekin lotuta ez badago, berrikuntza sozialean abangoardian egotea nagusituko da, are gehiago berrikuntza horiek duintasun eta askatasunaren kontzientzia batek, justizia eta elkartasunaren kontzientzia batek eskatuta badira. Sentimendu horiek partekatzen dutenak indartsuak dira egun. Beren indarra itzela da, gogo zintzoak animatzen dituen zerbait direlako, eta uste dugu zentzudunak, ideia garrantzitsuen aurrean sentikorrak direnak gehiago direla.

p 257

Ikertzea da etsi eta atzera egingo ez duten gizartearen eta komunitatearen oinarriarik unibertsalena eta egokiena. Gaur egun, edo aurrerago, ikertzea ez da ez apeta bat ez luxu bat, funtsezko premia baizik; besteen kontura bizitzea espero ez dutenek aurre egin beharko diotena edo landu beharko dutena.

p 260